

KALITATE - POLITIKA

HARROBIAk plan estrategikoan onarturiko eginkizun, ikuskera, estrategia eta ekintzetan etengabeko hobekuntza ezinbestekotzat jotzen du.

Helburu nagusia HARROBIAn kalitateko lanbide hezkuntza-zerbitzu integrala (prestakuntza-premiak hautematea, metodologia berriez emandako irakaskuntza, ikasleen jarraipena eta lan-orientazioa eta ekintzailletza) ezartzea eta mantentzea da. Horretarako, ondorengo alderdiak kontuan hartu eta asebetetzen ahaleginduko da:

1. Ikasle guztien premiak, eskakizunak eta itxaropenak.
2. Euskal gizartearen euskalduntze prozesuaren premiak eta erronkak.
3. Kooperatibako lan-bazkide eta Harrobia Ikastolako langileen premiak eta itxaropenak.
4. Enpresen eta Enpresa Elkarleen premiak eta erronkak.
5. Administrazio eta erakunde publikoen plan estrategikoak eta helburuak eta bereziki, Lanbide Heziketa eta enplegu eta prestakuntzarekin zerikusia dutenak.
6. Ikastola-bazkide, Ikastolen Lanbide Etxea Fundazioaren kide, ikastolen kolektibo eta beren ordezkarien helburuak.
7. Legezko arautegiak.

HARROBIAko langile orok kalitatearen kudeaketa sistema eta etengabeko hobekuntzarekiko erantzukizuna onartu dute. Hau horrela izanik, zuzendaritzak baliabideak bideratu, talde-lana bultzatu eta sistemaren lidergoa harturik, eguneko eginkizunetan islatuko du, HARROBIAko langile orok bere eginkizuna eraginkortasun eta gustura egin eta beharreko ezagutza maila har dezaten.

Kalitate politika hau HARROBIAko langileek berrikusteko aukera izango dute eta guztiei jakinaraziko zaie. Halaber, behar denean eta aldiro kalitate-sistemaren berrikuspenera egingo da guztion ekarpenak eta iradokizunak kontutan harturik eta hobetzeko asmoz.

HARROBIA ikastolak kalitatea kudeaketa-tresnatzat harturik, kalitatearen aseguramendurako UNE – EN ISO 9001 Nazioarteko Araua eta Euskal Lanbide Heziketako Sailburuordetzak sustatutako eta babestutako kudeaketa-, autoebaluazio- eta hobekuntza-eredua erreferentetzat hartzen ditu.

Eta hau nonahi eta zernahitarako ager dadin, gaur, asteazkena 2017ko urriaren 26an, izenpetzen du:



FERNANDO GARRIGÓS GABILONDO
HARROBIA IKASTOLAKO ZUZENDARI JAUNA